

# FAMILIA

Itsuak ere badakus mundua aldatzen ari dela. Eta alferrik itxiko ditugu begiak gertatzen dena ukatzearentzen.

Munduan, beste gauza askoren artean, familia ari da aldatzen. Agian ez genduke aldatzerik nahi. Baina guk nahi ez arren ere aldatuz joango da. Dagoeneko ere, garbi dago, zenbait gauzatan asko aldatu dela.

Ez dira berdiñak, lehengo eta oraingo, senar-emazteen, guraso eta seme-alaben eta senideen arteko arremanak.

Gurasoak, lehengoa ezagutu zutenak, arritu egiten dira gaurko gazteen jokabideez. Seme-alabak, berriz, oraingoak direnak, gurasoen iritziez.

Eta ortik orrenbeste iskanbilla eta konpondu ezin gure etxean. Baina auzi au konpontzeko, ezer oberik ez, elkarrekin itzegitea baiñio. Zer pentsatzen dute batzuek eta besteek, adibidez, maitasunaz, ezkontza-bizitzaz, ezkontza-nahasteaz, eta austeaz, aur-galtzeaz, aur-neurtzeaz, gazteen ezieraz, gaurko gizarteaz eta bizimoduaz?

Badirudi gaurko gazteek ez dietela eskerrik ematen beren guraso eta gizarteak eskeintzen dizkien bideei. Diru-zalakeriaz, itxurakeriaz, norgehiagokieriaz eta gogorkeriaz betetako gizartea dakuste. Onek gogaiturik mundu berria nahi lukete.

Mundu berria egin nahi lukete batzutan bide egokiak aukeratu eta bestetan ez ain egokiak. Asmatuko al dute? Iraungo ote dute burrukan ala aspertuko ote dira?

Zer erantzun emango ote die ortarako familiako giroak? Lantza ala eragozpen izango ote?

Arazo au dela eta galdera mordo bat argitaratu du "La Vie Catholique" asterokoak irakurleentzat. Jendearen iritzia jakin nahi luke. Elkarrizketan lagundu nahi die familiei.

Lau gai nagusi aukeratu ditu ortarako:

1. Familiako arremanak: Nola dabilta gurasoak maitasunez? Zenbat denbora egiten dute umeek etxean? Ana lanera joaten al da? Umeak bizitzen al dira etxetik kanpora udara aldian edo? Bai al da etxean aiton-amonarik edo?...

2. Agintea eta askatasuna: Aginte gogorregia ala bigunegia? Zer zigor mota? Zigorrik behar al da? Zenbaterainoko askatasuna eta aukera bideak?...

3. Familia eta seksualitatea: Zerk zapuzten du gehienbat gurasoen maitasuna? Zer garrantzi du ezkontza nahasteak? Zer diozu "erri-ekontzaaz"? Zer ezkontza austeaz? Ezer erakutsi behar al zaie umei seksualitateari buruz? Nork? Zer diozu ezkontza aurreko seksu arremanei buruz? Zer aur-galtzeaz? Zer aur-neurtzeaz?...

4. Familia eta kristautasuna: Zure etxean asko itzigiten al da erlijioaz? Sinestunak al dira zure gurasoak? Elizara joaten al dira? Bataiatzen al dituzte beren aurak? Noiz bataiatu beharko lirake? Zer eratako kristautasuna eman beharko litzake? Ezer aldatuko al luke familiako arremanan siniesmenik ezak?...

Galdera auek eta gehiago egin dizkie beren irakurleei. Zalan-zarrik ez dago, gure artean ere, or dabilta galdera auek denak ahoz-ahoz. Elkarrizketari ekin behar guk ere. Ez dezagun pentsa isilduaz erantzungo diegumik. Beldurrik gabe aztertu behar ditugu. Eta argia eskefiri ere bai otzan eta apal.

# BANKAETXEAK BERRIRO...

Azken aldi honetan bankaetxe barruan eztabaida eta burrukak ugartzen dohaztela dirudi. Konbenio berria dela bide, dirudienez, luzaroan ez da bakerik izango. Kapitalismoaren ezaugarri berezia dugunez gero, klase burruken egoera gehiago nabarmentzen zaigu bankaetxetan.

Diruz eta ekonomiaz bankaetxeak ditugu indartsuenak gaurregun, eta baita irabazpideari dagokionez aurreretatukoak ere. 1970 garren urtetan berrogei bankoek hamar mila milioitik gora irabazia dute irabaziaz % eko 14,7 gehitu da, Actualidad Económica aldizkariak dionez.

Ez genduke zenbaki eta numeroz nehor asper erazi nahi. Baina datoak ere gogoan hartzeakoa bait dira, batipat eskabideak zuzentzerakoan izan lezateken indarragatik.

Aspaldidanik, bankaetxetako langileek indartzen dihozkigu, «kor-bataidun» langileek euren egoeraren kontzientzia handiagoa dutela esan genezake. Kapitalaren zama-pena bizi behararen ezina nabatzen dute nunbait.

Behin eta berriro konbenioa planteatu da langileek euren eskabidea zuzendua dute. Zer da bada, langileek eskatzen dutena? Bots puntu dituzte nagusienak:

—Konbenioa egiteko erari begira: Aurrerentzean ez dute sozial batzarrekoek bakarrik ontzat emango, gainontzeko langileekin konsultatuz baizik.

—Lau mila pezetaren altxaera eskatzen dute hileko eta langile gutzientzat. Ondo estudiatu eta aztertu ondoren eskatu dute hau. Geroxeago ikusiko ditugu eskabide honen arrazoibideak.

—Urte beteko epea konbenioarentzat hots, ez dezala gerora ezerezen luzapenik izan.

—Larunbata eta udako lanaldiak ordu betetz gutxitzea.

—Guztiantzat, 30 eguneko oporaldia.

Hauk dituzte, laburki adieraziaz, eskabide nagusienak, zer esana pranko emango dute aurrerentzean. Itxuragabekoak ote?

Gaurregun, ekonomia bankaetxeak kontrolatzen dutela itsuak ere ikusten duen zer baita da. Irabaziaz gehitzea ahal den jorنالک tipienak ordaintzea +zuzen eta osasungarri-erantzitzaie. Horregatik, berezia da, benetan, bankaetxeak antola dezaten konbenioa, eta handia bertako langile-burruken oiarztuna.

Jornalaren altxaera eskatzerakoan bi alderdiei begira diote langileek. Alde batetik, bizi beharrraren premia, gaurregun ordaindu beharrrak zenbateraino iristen diren googan hartuz. Bankotako langileak «pluriempleoaren» menpean aurkitzen direla esan genezake. Zergatik? Lan horren premia dutelako? Euren gastuetako osagarri bezala?

# BUFALOAK ETA TERMITAK

Euskal Herria gaur bizi den kinka larria gauza nabarmena da, eta milatan aipatua. Funtsean, ordea, arras funtsean, zertan datza gure egoeraren berezitasuna? Beste modu batez esateko, zerk berezten gaitu arazoa jasaten dugunok? Erantzuna hau da, nik uste: euskaldun batzuek bufalotzat jotzen dugu geure burua; beste batzuek, aldiz, termitatzen. Hauxe da kakoa, nik uste.

Termita anitz saiatu da kinka larri hau «hozki» azaltzen; eta burua, «adimen hutssez», gertaerak eta gertakizuna razionalki argitzen. Eta beti lur jo dute hainek. Zergatik? Beti axalean gelditu izan direlako.

Baserrri zaharrakatuko habeetan janari-pilo bikaina antzematen dute termitak; eta, jan ala, algaraz lapartatuak entzun arazten. Beste-ko, berriz, betirako utzi behar dugun babeslekua sumatzen dugu.

Bufalook, hitz batez, ez dugu kinkari buruzko azalpen beharrik: bihotzaren muinean senditzen dugu geure herria gertatzen ari dena. Eta sendimendu ezin sakonago hori azaldu eta zuzentze nahia bera, birau iruditzen zaigu; Avila-ko Terresari bere amodioa azaldu-beharra biraua irudi zekiokan bezala. Herrikide termitei buruz, horretara, zergatik ote den jakin ez arren, azaldu ezinezko higuinak hartzen gaitu; ezer pentsatu baino aisa lehenagoko eta barneragoko nazkak.

Eta termitak eta bufalook ez dugu beren mundu berean elkar ulertzen.

Bufalook amai-kutsua aditzen dugu bazterretan, ilunabarrean ikusten dugu geure burua; eta, izpirituaren zolatik beretik, ilunabarra maite dugu. Termitek, aldiz, egur-dia nahiago; eta ilunabar erromantikoak gorroto.

Bufalook argi epelak maite ditugu; termitak eguzki diraditsua. Bufalook udazkena maite; termitak udara idorra. Bufalook badakigu zer diren kasuarra eta kiwia; termitak ez. Termitak sendo ez dagoenik ezer ez dute erreparatzen; eta horregatik, nahiz gure herria bizi, ez dute Euskal Herria erreparatu.

Bufalook ainu-tarrez oroitu gara Sapporo-ko txapelketetan; termitak, berriz, aski zuten Schranz-en arazoarekin, eta Hokkaido ainu-tarrik zegoenik ere ez zekiten, ez axola ere. Termitak Kasbah-ko harkien haurrideak dira.

Vicente Aranak bazuen «bufalotasun» hori; eta «Los Ultimos Iberos» deritzan liburua idatzi zuen, ilunabar argitan oratua.

Felipe Arrese-Beitiak, euskaldun bufaloetan bufaloena agian, honela zion samink:

«Gelegi da-ta, ausi, arkaitzak, onegi ez izan, mendiak, lurpetuteko euskera lila ta bere ondasun biziak. Bera, tontorrek, bete arruak, erdie Gaztela-lau igarrak; agortu errekek, lurtu itxasuak; agur, euskeldun ibarrek!»

Eta otxandiarak ekiten; «geure erruz, bada, ekarri dogu erijotzako unera».

Roger Idiarte azkaindarrari, Xi-

beroz mintzo delarik, bufalotasuna dario:

«bena gure xokhua hūsten ari dela, eta segūr hiltzeko pūndian girela».

Gauza bera Anjel Irigarai eta Kandiola izagirre euskaltzaleak, bizi gutzian barrera «euskal hondakinen» bila ibiliak. Bufalo galantak Azkue eta Mitxelena. Termita berri Miguel Unamuno.

Bufalo dugu ere, funtsean, Julio Caro Baroja, Irigarai-ri berriki egin dion hitzaurrean Nafarroaz hau idatzi duelarik: «Se oirá el mugir del viento, ábrego o cierzo, o el movimiento de algún animal solitario. No hay hombres vascofonos o no vascofonos. No hay más que casas vacías. Triste destino de un país, lleno hasta hace poco de aldeas con vida».

Bufalo izan zen Pio Baroja; baina ez zekien, eta gure arteko batzuek ez dakite oraindik. Don Pío xirimiria maite zuen; eta zeru goibelak eta ilunabar malenkoniatuak. Eta (ba ahal dago euskal bufalotasunaren ezagugarri nabarmenagorik agian?). Ipar aldera jo-arazten zion bihotzak; eta liluraturik zedukaten Noruegak eta iparter herrialde lanbrotsuek. Hots, ilunabar luzakorren eskualde hura ezagutu duen euskalduna (A. Anabitarte mintza lekiyuke honetaz) betirako hunkiturik gelditzen da. Ni neu bederen, aitor dut, zeharo hunkitu naute fiordo gaitzek: akabera-bake hura bait da, inkontzientean, barne-muinetan iltzaturik daramagun geure herri-rudi fina. Euskal Herria fiordo bat da.

Gauzak honela senditzen dugunok gaude alderdi batean; eta senditzen ez dutenak bestean daude. Hauxe da benetako berezlea.

Ilunabar hori egusentia bilakatu ote den zalantzak eta eztabaidak daude bufaloen artean. Baina bufaloen eta termiten artean amildegirik sakan bat dago, «arro» bat Arrese Beitiak arestian aipatu duen hitza aipatzeko; eta hauen eta haien artean ez dago elkarpiderik. Bi hizkuntzaz mintzo dira (ez bait da askotan metafora hutsa!).

Termitak, horrela, zifra asko eman dezake agian gutzaz; eta baserririk zahar huts batetan «week-end»-etxeko dotore aparta bat atondu. Dudarik ez. Baina Euskal Herriaren kinka ulertzeaz... ¡ai da-duka gizajoak!!

Termita bait da; eta ez bufaloa.

**ARGIA**

Zuzenadaria:

**MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA**

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.° Burlada-Pamplona).  
Donostia: Okendo, 22  
Tel. 42 66 66

**ARPIDE SARIA:**

Barrun	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitzaz)	7 pezeta